

Piarrechen izialdura

(Benabarreko eskuaraz)

Herri ttipietan ere, hirietan bezala, badire yende gaichtarrot eta trufatzaileak. Irri egiteko, debruzko ihakintzak asmatzen dituzte zonbaitek.

Behin, bospasei adichkidek egin zuten afari on bat. Untsa yandean ondoan, eta gauza guzietarik mintzatuik, erori ziren sorgin, debru eta lamina solasian.

Trufatzen ziren gaizo zozo horietarik, itsuki sinhesten dutenentarik, atso beltzak, yats batian zaldizko, chimindegiari behiti sukhaldetan sartzen direla.

Irri karkailetan zauden denak holako astokerietaz.

Adichkideetarik bat, Piarrech, gizon izikorra zen, bainan ahulkeria hori ez agerrarazteko, berak ere irri egiten zuen, bannian herabe izanikan ere.

Piarrech bizi zen herritik urrunchko, mendian, bazterretche pollit batian.

Mahaitik chutitu eta erran zien adichkideeri. «Uzten zituztet, emazteak ez nezan berantets. Egizie lo, eta bihar artio». Gauza bera, Piarrech, ihardesten dute.

Etzakien gaizoak ze debrukeria zuten asmatua lagunek, beraz trufatzeko. ¿Nola sinets afaria chede hortan egiten zutela?

Abiatzen da Piarrech mendiari goiti bide zehiarkatu eta sasitsu batian. Gaua ilhunenentarik zen. Hiru urrats aitzinago etzen bihirik ageri.

Buria aphaldia, ostatuko solasak gogoan, bazohan doi bat beldurtia, noiz eta bat-batian, brist, iragaiten zaio zerbait zangoen ondotik. Ilhun beltz hartan ezin ikhusiz chakhurño izitu bat zela bihotzak punpa bat egiten dako.

Handik harachago, bidearen bihurgune itsusienean entzuten du garrasi samin bat.

Gelditzen da Piarrech landatua, ikharatua. Bertze bi urratsen

ondotik berriz aditzen du ohiu izigarri bat, lehenbizikoa baino ozena.

...Eta haritz ondo lodi baten sahetsetik agertzen zaio egundaino ikhus diteken gauzarik ikharagarriena!

Gizon edo debru alimale luze bat, burutik zangoetaraino mi-hise churi batekin yauntzia, begitartea kukutua, argi bat eskian... Eta hobitik edo ifernutik atheratu botz itsusi batekin erraiten dako Piarrechi.

«Arima herratia nuk, debru gorriak igortzen nik hiri yakina-razteko ifernukho suian kichkalduko hizala hogoi egunen burian bethiereko oinhazetan, ez balinbaduk berehala itzultzen yabeari ebatsi hien zikhiro hura, Dominicheneko arthaldetik.»

Eta Piarrehek, lurrari itzatua, ezin higituz, bihotza panpa zalapartan, ihardesten du botz mehe batekin. «Baa, eginen dut zuk erraiten daazuna.»

Bainan ordian, arima herratua, yauzi batez, mihisia zaflaka, besoak zabaldurik, aztaparrak idekiak, Piarrechen lephoari lotzeko eta ithotzekotan zohalarik, hau, (indarrak ez dakigu nola berrituak), itzultzen da eta patarrari behera urtchintcharen zalhutasunian hartzen du herriko bidia, hats gaitzian, hasperen haundian.

Tupustan eta lehertua sartzen da ostatuan, eta erraiten dako etchekoandieriari. «Trenpe chartia niz, eta nahi nuke hemen iragan gaua.»

—¿Bainan zer duzu, ze gerthatu zauzu, Piarrech: nahi duzia hartu tea edo tisana bero bad?— Ez, ezdut deuseren beharrik.

Eta emaztekiak ereman zuen gambera baterat. Piarrech ohean hedatu zen zabal Zabala, bihotza oraino yauzika.

Haren adichkideak kukutuak zauden beste gambera batian, denak entzunik, irriz leher egiteko phundian.

Bulta baten ondotik, etchea ichiltasunian zelarik, atheratzen dira handik eta zango puntetan yuaiten Piarrechen atheko giltza chilotik soiterat. *Arima herratua* ere heiekin zen...

Piarrehek entzuten du, berriz oichtian aditu garrasia. ¡Gai-zoari ordian argitzen zaio adimendua, eta dena ulertzen! Herra gorrian oihu egiten du. ¡¡Urde zerriak, urde tresna tzarrak!!

Bainan etzen ohetik higitu. Phausu luze baten beharrian zen.

ENRIQUE ZUBIRI (MANEZAUNDI).

Iruñen, 1934-an.